

DONOSTIAKO Udal Liburutegiko mahai inguruan lehengo egunean eztabaidatu zen mintzagaia («Idazlea eta Iraultza», martxoaren 20an), oso gai garrantzitsua da.

Parte hartu genuen hirurok, baita zuzentzaile zegoen Josu Landa ere, batera gentozen funtsean: idazleak ez du inolako «venia»rik, inolako barkazio edo indulgentzia berezirik, bere herrikoideen problematikatik at geratu, eta zeru urdinean barrera kutsugabe ibiltzeko. Ezker abertzalearen alorrean mogitzea aitortu genuen hirurok; eta hirurok ere (Urkizuk, Arrietak eta izenpetzen duen honek) Jean Paul Sartre aipatu genuen geure ikusmoldearen alde.

Nola azal daiteke, beraz, azkeneko urte hauetan Euskal Herria odolez, negarrez eta hamaika sofrikario latzez idazten ari den nazio-epopeia harrigarri honek orain arte literatura emari hoberik eta ugariagorik ez ekartzea? Hauxe izan zen, nik uste, azkeneko galdera.

ARAZOA oso zabala da; zeren-eta beste herrikeri ere, beren kinkaldirik gorenetan zeudelarik, horrelako hutsunerik ezagutu baitute luma-gizonen artean. Han bertan aipatu ziren Joyce-ren kasoak, Irlandako nazio borrokari buruz ukzur, etsai ere ez esateko; Camus eta Kafka-ren kasoak, Arjelari eta Txekiar herri mogimenduekiko arrotz; eta, nola ez, eta gureari dagokionez, Unamuno eta Baroja-ren kasoak. Zer gertatu ohi da, beraz, horrenbeste aldiz idazleek bere, herrien borroka askatzaileari bizkarraren horren nabarmenki eman diezaizoten?

«Panfleto»an erortzeko beldurra aipatu zen: literatura militantea behin eta berriz gertatu da porrot eta deskalabro. Gogoan har, bereziki, Estatu komunistetako Arte proletaristen kasoak. Eta euskal idazleek hori badakite, eta beldurra daude.

Auto-zentsuraren arazoa aipatu zen: euskal nazioaren mogimenduz hitz egitea, eta borroka harmatuari dagokionez, osoki aurka ez egitekotan bederen, arront bide labainetan eta arriskugarritan barrena abiatzea da; inolaz ere «terrorismoaren apologia» egiterik ez dagoelako.

Joxe Agustinek, azkenik, trenean doanak trenari berari buruz idazterakoan topatzen dituen zailtasunak azpimarratu zituen: azkenean, trenetik at eta kanpoan ikusten dituen bazterrak hautatzea eta azaltzea zaio errazago. Literatura egiteko, tarte apur bat behar da, distantzia behar da.

Hori al da dena, ordea? Ez dut nik uste; eta zalantza hau aidean gelditu bide zen.

IDAZLEEN baranoan, beste edozein giza baranotan bezala, nazio eta klase nagusien ideiak baitira nagusi. Eta agian, orokorki bederen, eta sal-

PRIMUM VIVERE

TXILLARDEGI

buespenak salbuespen, hor arakatu behar baita kakoa.

Geure herrian egunero ikusten dugunez, harrigarria da gure arteko «intelektualak» (eta idazleak hauen artean jar daitezke, nik uste) zein aisa lerratzen diren, sozialki «ongi ikusiak» diren jarreretara. Garbikiago esanda, zein erraz egokitzen diren nazio, klase eta ideia nagusiekin. Harritzekoa da askok eta askok zein erraz ematen dituzten ontzat Espainiari datxekion lurralde-markoa, hizkuntza inperiala, Madrileko prentsa informazioa iturri nagusitatzat, eta abar; eta zein erraz ere utopikotzat jotzen duten iraultzaren proiektua. Hitz batez, zein erraz asimilatzen eta iresten dituen sistemak. Salbuespenak ez dute fenomeno orokorra ukatzen.

Estatistikoki, ordea, argigarri litzateke idazleen famili jatorria eta klasea non kokatzen diren aztertzea. Beti esan izan da, gaur arte, eta oro har, burgeskumeek idatzi izan dutela; idazteko, denaz gain, astia eta kultura behar direlako. Eta astia eta kultura izateko, gurasoen eldetik halako aisia edo diru-arazorik eza jasotzea oso egokia delako. Bestalde esanda, zinez zapaldutako giza multzoetatik, nekez zer daiteke lumarako deirik. Eta Euskal Herrian ere hauxe hartu behar litzateke kontutuan.

Beste herritan bezala, jakina. Noraino zen Joyce irlandar zapaldu bat? Noraino zen Kfaka judua, txekiar zapaldu bat? (Hain zuzen ere, juduen lekuko da Kafka, eta ez txekiar abertzaleena). Eta abar. Idazle askoren kasoak normala da: beren gizataldearen lekuko dira, eta ez beren geografi-sorterrikoak.

Zer eska dakioko, esate baterako, euskaltasunez eta ezkertasunez, Donostian txiripa hutsez jaiotako notario-semble ondasuntsu bati, urte batzutan sasi-anarkoz jantzirik ibili bada ere? Nondik nora le-torkioke erabat alienaturik ez egoteko «venia»? Odolaren arrazakeria zaharrari, orain geografaren arrazakeria berri hau erantsi behar al diogu? Alegia: esaidak non jaio haizen, zein herritan jaio haizen, herri horrekiko harremanak eta loturak nolana-hikokak direlarik ere; eta nik erantzun-go hiat noren izenean mintza haitekeen, eta

nongo zapalduen profeta eta aintzindari bihurtuko haizen... Kirtenkeria galanta!

Idazleen alorrean ere, idazleen alorrean bereziki agian, alienatuta egon daiteke idazlea; eta erabat bere herriaren zapaltzaileei *salduta*. Inperialismo pean bizi diren herrietan, hain zuzen, luma-gizonak zein nazioaren eta zein klasearen zerbitzutan jarri diren aztertu gabe, okerreria gaitzak egin daitezke. Idazleak ere ideia nagusien kontrako lana egin behar baitu.

«Halaz ere —erantzun dezake norbaitek— idazle traidore batek, badituzke literatur balio handiak: horra hor Joyce, Celine, Borges bera»...

Eta honetaraz gero, ene ustez, erantzuna hauxe da: «primum vivere, deinde philosophare». Alegia, Justiziaren eta Artearen artean hautatu behar denean, Justizia behar dela hautatu, eta ez Artea. Azken funtsean, Literatura, herriaren bizia bera arrisku larritan dagoenean, alienazio bihurtu daiteke, aitzekia, ihespide. Eta alienazio bila ari den mezuak, zer balio dezake? Nik beti izan ditut, eta ditut, eskuak garbitu dituzten hiper-literato horiekiko susmo txarra. Zer balio dezake beroien Arteak, Arte gisa ere? Ez dakit. Baina ez naiz soberra fio. Etb Metropolitetan lortutako arrakastak, handiago egiten du nire mesfiantza.

Zer sentidu zuen, edo izan zezakeen hobij, Estetika «hutsak» Auschwitz-ko Labe famatuen ondoan, edo Varsovia-ko ghettoaren txikiziko betean? Egoera horietan, zer adieraz zezakeen borrokatik at egindako Literatura «hutsak»? Erantzuna: «primum vivere».

GAURKO egunean «Literatura hutsa» egin nahi omen dutenak; Joyce eta Camus, Cortazar eta Arguedas baino maizago aipatzen dituztenak, niri neuri behintzat, bitxi gertatzen zaizkit. Eta aspaldiko erdibiketa famatu haiek gogorazten dizkidate: «¿se puede ser abertzale sin ser marxista? ¿Por qué va a desaparecer el pueblo vasco si el vasuence desaparece? ¿qué se es antes: hombre o vasco? ¿qué adelantamos con una Euskadi independentiente en que mande la derecha?». Eta orain beste hau etorri bide da: «¿por qué no puede ser un gran literato vasco quien «passa» de la lengua y de la lucha vascas?»...

Galdera bitxiak. Ez da hala? Nola egin daiteke ezer *egiazkorik*, errealitateari, egieri eta inguruneari uko eginez? Nola idatz daiteke, zapalduen izenean, zapalduen *problemari* ez balute bezala? Edo, hobeki agian: nola idatz daiteke Euskal Herrian zapaltzaile diren nazio eta klaseen ikuspuntutik, eta zapalketaren laguntzaile gertatu gabe? Hori miraria!

Balegoke beste argibide hau ere, zalantza egotekotan: «Qui prodest?».

Eta hautakizuna garbi agertzen da, nik uste.